

1. Etxalde transmisio deialdia

Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta Lurzaindia elkarrekin DOMINTXINE-n Eyhartzeara etxaldea alokatzeko laborantza deialdi bat zabaltzen dute.

Norentzat ?

Edozoin pertsona fisiko ala morala

Lehentasunezko puntua

Laborantza herrikoiaren printzipioekin bat egiten duen laborantza aktibitate bat garatzea

Hautatzeko irizpideak

Proiektuaren kalitatea ; hautagaien profila ; laborantza biologikoan aritzea ; aktibitateak dibertsifikatzea ; lurzorua kontserbazio-laborantza praktikatzeko ; proiektuaren pixkanakako obratzea konduan hartzea ; LURZAINDIA eta EHLG-ren proiektuak ulertzea ; TREBATU-rekin entsegu-gune bat plantan ezartzeko aukera konduan hartzea.

Etxaldearen aurkezpena

Laborantza lurrak : 28 hektara (23 ha alor, horietan 7 ha haran zokoan eta beste guzira muino guti-aski patartsuetan + 2 ha puralleria parke + 3 ha pentze patartsu)

Etxaldeko bastimenduak : arraberritzekoa den etxe bat (400 m²) + hangar zahar bat (160 m²) + arto iguzki-idortegi bat (2 × 60 m²) + hangar moderno bat (260 m²)

Etxaldeko aktibitateak : oilo errule hazkuntza (150 leku) + alor handiak + sagardi gazte bat (30 area inguru lehengo barietateko sagarrondoekin)

Nola erantzun deialdiari ?

1/ 2021eko Maiatzaren 10 (astelehena) eta 18an (asteartea) iraganen diren 2 etxalde bisitetarik batean parte hartzea galdegiten dut ;

2/ Ene hautagaitza 2021-eko maiatzaren 31-a baino lehenago pausatzen dut ;

3/ Maiatzaren 31-tik goiti, atxikiak izanen diren hautagaitzak haien proiektuen aurkeztera gomitatua izanen dira, hautaketa batzordearen aitzinean.

Informazio eta hautagaitzak Euskal Herriko Laborantza Ganbara-ra igorri behar dira : mael@ehlgbai.org

Zer da hautagaitza dozieraz ?

- Proiektuaren aurkezpen laburra
- Proiektuan parte hartuko duten pertsonen motibazio gutun eta CV-ak
- Elementu ekonomikoak eta aurrekonduak